

æek
22. korrika

3. ALBISTEA

2022/01/19



B1

MAILA

**Amurriotik Donostiara,
ibilbide osoa aurkeztu dute.**

HITZETIKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Amurriotik Donostiara, ibilbide osoa aurkeztu dute.



Amurriok emango dio hasiera 22. KORRIKari. Arabako ipar-mendebaldean dago, Aiaraldea eskualdean. Araban populazio handiena duten herrien artean hirugarrena da (Gasteizen eta Laudioaren ondoren). Gasteiztik 40 bat¹ kilometrora dago, eta Bilbotik 30 bat km-ra.

Martxoaren 31n hasita, hamaika egunez, etenik gabe, eguzkipean zein ilargipean, Euskal Herri osoa zeharkatuko² du KORRIKAK: Nerbioi ibaiaren haranetik³, Durango aldera; eta, Anbotoko Damaren⁴ babesetik, Gasteiza abiatuko da. Itzulinguruka⁵ arituko da KORRIKA. Bidean, Euskal Herriko bazter ugari zeharkatuko ditu: lurralde berde eta hezeak⁶ zein⁷ basamortuaren parekoak⁸; mendate aldapatsuak zein lautada ederrak; Errioxako mahastiak zein Ezpeletako piper-landareak; herri txiki xarmagarriak zein metropolia, "Bilbo Handia". Berdin zeharkatuko ditu barnealdeko leize ikusgarriak zein kostaldeko itsaslabarrak⁹. Eta, horrelaxe, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, helmugaraino; Donostiaraino, Txillardegiren

sorlekuraino¹⁰. Apirilaren 10ean, milaka euskaltzalek Donostiako kaleak hartuko ditugu, hitzez ekiteko prest!

KORRIKAREN APPA

Aurten ere, KORRIKari egunez egun jarraitu ahal izateko aplikazioa guztion eskura jarriko du AEK-k. Aplikazioan, hauxe topatuko dugu: ibilbide osoaren mapa, lasterketa une oro non dagoen, edozein lekutara noiz helduko den... Ibilbideari buruzko informazioaz gain, KORRIKari buruzko azken orduko jakinarazpenak¹¹ ere jaso ahal izango dituzue.

PETOAK SALGAI

KORRIKA dotore egiteko, salgai daude petoak: hiriburuetako dendetan, *online*, eta, hemendik aurrera, baita euskaltegietan ere.

Hiztegitxoa:

1. bat: más o menos; *environ*
2. zeharkatu: atravesar; *traverser*
3. haran: valle: *vallée*
4. Anbotoko Dama: personaje mitológico que vive en el monte Anboto, encima de Durango; es uno de los nombres de la diosa Mari. *Personnage mythologique qui vit sur le mont Anboto, au-dessus de Durango; c'est l'un des noms de la déesse Mari.*
5. itzulinguruka: dando vueltas; *elle fera des détours*
6. zein: tanto... como...; *ainsi que*
7. heze: húmedo; *humide*
8. basamortuaren pareko: semejante al desierto; *comme des déserts*
9. itsaslabarrak: acantilados; *falaises*
10. sorleku: lugar de nacimiento; *lieu de naissance*
11. jakinarazpen: notificación; *notification*

NONDIK NORA JOANGO DA? ZEIN ORDUTAN PASATUKO DA?

Martxoak 31

Amurrio 16:30
Balmaseda 19:23
Ugao 23:51

Apirilak 3

Cárcar 01:39
Tutera 11:43
Zangoza 22:59

Apirilak 6

Kanpezu 00:37
Igorre 15:12
Bilbo 19:37

Apirilak 9

Doneztebe 03:42
Kanbo 12:52
Baiona 17:29

Apirilak 1

Durango 05:11
Legutio 14:59
Gasteiz 17:07

Apirilak 4

Irunberri 00:37
Donibane Garazi 14:58
Maule-Lexarre 21:26

Apirilak 7

Barakaldo 00:00
Bermeo 13:33
Ondarroa 22:39

Apirilak 10

Irun 00:54
Hernani 06:49
Donostia 07:36

Apirilak 2


Agurain 00:05
Iruñea 09:18
Tafalla 20:57

Apirilak 5

Baigorri 03:50
Lekunberri 13:32
Lizarrar 20:53

Apirilak 8

Zumaia 03:08
Andoain 08:48
Beasain 19:39



1. Kokatu leku hauek mapan:



1. Abadia jauregia (Hendaia)

2. Xabierko gaztelua
(Zangozako merindadean)


3. Gaztelu Zaharra (Maule-Lexarre)

4. Gaztelugatxe
(Bakiotik Bermeorako bidean)5. Ulibarri-Ganboako urtegia
(Legutio ondoan)

6. Itzurun hondartza (Zumaia)

7. Erregeren Bardea
(Tuteratik Cadreitarako bidean)

8. Arnagako lorategiak (Kanbo)



9. Sorginetxe trikuharria (Agurain)

2. Artikulua irakurri, eta mapan begiratu ondoren, erantzun honako galdera honi: zein egunetan eta ordutan pasatuko da KORRIKA (gutxi gorabehera) irudietako leku hauen ondotik? Erantzun adibidean bezala.



Adibidea: Senpereko aintzira. Senpere 8:25 (apirilak 9)
(Senpereko aintziraren ondotik) apirilaren 9an pasatuko da, goizeko zortzi eta erdiak aldera.

1. irudia:
2. irudia:
3. irudia:
4. irudia:
5. irudia:
6. irudia:
7. irudia:
8. irudia:
9. irudia:

PROZEDURA:

- ▶ Albistea hedabideetan ikusi ote duten galdetu, eta gaia aurkeztuko dugu.
- ▶ Ikasleek albistea irakurri eta ulermenari dagozkion zalantzak argituko ditugu (2. or.).
- ▶ **Albistea komentatuko dugu** (aplikazioa¹ gure telefonoetan deskargatu, eta ikasleekin ikus dezakegu, eta, ikusi ahala, egoki deritzegun azalpenak eman).
- ▶ Euskal Herriaz zer dakiten galdetuko dugu: zenbat herrialde ditu? Zein dira hiriburuak?
- ▶ Euskal Herriko herrialde eta hiriburuak zein diren ez badakite, azalpenak emango ditugu pantaila handian egoki deritzogun mapa² jarrita (ikasleei 3. orrialdea banatuko diegu).
- ▶ **1. jarduera azalduko dugu** (3.- 4. or.): binaka, irudietako lekuak mapan kokatu beharko dituzte.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu, eta irudietako lekuak ezagutzen ote dituzten galdetuko dugu (nahi izanez gero, euskarazko Wikipediak dakarrena ere pantaila handian paratu, eta gure hitzetan azal diezaiekegu leku horiei buruz zer jartzen duen; Bide batez, ikus dezatela euskarazko Wikipedia ere badagoela...): noiz egon ziren toki horietan, norekin, ezagutzea merezi ote duten...

ERANTZUN ZUZENAK:

1-i; 2-d; 3-e; 4-f; 5-a; 6-g; 7-c; 8-h; 9-b

- ▶ **2. jarduera azalduko dugu** (4. or.): 2. eta 3. orrialdeetako informazioarekin honako galdera honi erantzungo diote: *zein egunetan eta ordutan pasatuko da KORRIKA (gutxi gorabehera) irudietako leku horien ondotik?* (orduak nola idazten diren gogorarazteko, ikus "ERANSKINA Zein ordutan AEK").
- ▶ Gutxi gorabeherako ordua esateko erabili ohi ditugun esakuneak idatziko ditugu arbelean: *ordu bata aldera, ordu bat eta erdiak baino lehen, hamabi eta erdiak pasatuta...*

ERANTZUN ZUZENAK:

Aukera bat baino gehiago dago. Hemen, zenbait adibide zuzen jarri dizkizuegu.

1. Abadia gaztelua > Irun 00:54 (apirilak 10); maparen arabera, Hendaiatik pasatuko da Irunera.

Apirilaren 10ean, goizeko ordu bata baino lehen

2. Xabierko Gaztelua > Zangoza 22:59 (apirilak 3)

Apirilaren 3an, gaueko hamaikak aldera

3. Gaztelu Zaharra > Maule-Lextarre 21:26 (apirilak 4)

Apirilaren 4an, gaueko bederatzi eta erdiak aldera.

4. Gaztelugatxe > Bermeo 13:33 (apirilak 7); Bakiotik Bermeorako bidean dago (Bermeo baino lehen).

Apirilaren 7an, eguerdiko ordu bata aldera / eguerdiko ordu bat eta erdiak baino lehen.

5. Ulibarri-Ganboako urtegia > Legutio 14:59 (apirilak 1)

Apirilaren 1ean, arratsaldeko hirurak aldera.

6. Zumaia hondartza, Itzurun > Zumaia 03:08 (apirilak 8)

Apirilaren 8an, gaueko hirurak aldera.

7. Errege Bardea > Tuteran 11:43 (apirilak 3)

Apirilaren 3an, eguerdi aldera / 12ak pasatuta

8. Arnagako lorategiak > Kanbo 12:52 (apirilak 9)

Apirilaren 9an, eguerdiko ordu bata aldera.

9. Sorginetxe > Agurain 00:05 (apirilak 2)

Apirilaren 2an, gaueko hamabiak aldera

- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.
- ▶ Amaitzeko, KORRIKAREN ibilbideari erreparatu, eta **gaiari buruz arituko gara³ ikasleak parte hartzera animatuz**: noiz pasatuko da KORRIKA gure herritik edo gure herritik hurbil? Nondik iritsiko da? Zein ordutan? Norantz joango da? Nora joango gara KORRIKA egitera? Norekin? Euskaltegiak lagunekin animatuko ote lirartekeen galdetu...

¹ Aplikazioa deskargatzeko: iPhone: <https://apps.apple.com/es/app/korrika/id594215660>

Android: <https://play.google.com/store/apps/details?id=eu.aking.korrika>

² Ikusi *EH eta ibilbidearen IRUDIAK.zip* karpeta.

³ Solasaldia egiten laguntzeko, ikusi pantaila handian "3 KORRIKA albistea- Titularrak"